

ZESUMA

TRIKITIXAREN PRESENTZIA, DURANGOKO AZOKAN

Aurten ere Euskal Herriko Trikitixa Elkarte Durangoko Azokan izan da, hainbat produktu erakutsi eta saltzeko asmoz. Salmentarako ez ezik, Trikitixa Elkartearen berri emateko ere aukera paregabea da, ordea. Gainera, euskal produktuen erakusleiko bikainenaren fama duen azokan, trikitixak bistan behar du.

Urteroko legez, mahai jarritako produktuen artean, **egutegiak** arrakasta handia izan du. Urte zaharrari adio esan, eta urte berriari ongi etorria egiteko trikiti-irudiak aukeratzea ez da hautu txarra. Are hobea, seguru asko, urtea trikitixa-doinuen neurri dantzan hastea. Egutegiarekin jarraituz, aurten formatu-aldaketarekin iragarriko digu 2007. urtea. Urte osoa argazki bakarraren bidez azaldu beharrean, hilabete bakoitzerako Larrinaga edo Larrinaga-Gerrini soinuren baten argazkia aukeratu da, egutegia osatzeko. Beraz, hilero-hilero argazki berria eta hilabete berria estreinatuko ditugu.



Gainerakoan, normala denez, aurtengo nobedadeak saldu dira gehien, baina jendeak eskatu eta estimatzen ditu aurreko urteetako lanak ere. Hona hemen estimu handia izan duten lanen zerrendatxoak:

- Soinua paperean 1-2. Gelatxo eta Elgeta partitura liburu diskoak
- Pirinioak
- Auntxa eta Iturbidetarrak

Oro har, beraz, Durangoko Azoka eskaparate polita da urtean zehar ateratako lanak ezagutzera emateko, eta bazkide zein bestelako lagunekin harremanetan jartzeko.

KALEJIRAN

• **Arrasaten garaile izan da Pasaia Musikaleko Illunbe akordeoi taldea.** Pasaia Musikaleko akordeoi taldeak lehen postua eskuratu zuen. Jose Juan Zubiriagak zuzendutako orkestrak 30 minutuko saioa eskaini zuen. Arrasateko akordeoi lehiaketa oso entzutetsua da, eta bertan Errusia, Txina, Frantzia eta Finlandiako akordeoi-jotzaileak izan ziren, besteak beste. Akordeoi-taldeen modalitatean, berriz, bi parte-hartzaile izan ziren, eta Trintxerpeko taldeak Andoaingo taldea garaitu zuen.

Garaipen honek ate asko zabaldu dizkio Trintxerpeko akordeoi taldeari. Esaterako, Rialeko (Lleida) jaialdi garrantzitsuan parte hartzeko gonbita jaso dute dagoeneko. Illunbe akordeoi-taldea 24 akordeoi-jotzaile eta perkusionistek osatzen dute, eta, garaipen honen ondotik, gogotsu daude kontzertuak emateko.

GALBAHEA

• **Felipe Azpiroz trikitixa eta pandero-irakaslea:**

- "Pena modukoa badut: gazte asko hasten dira trikitixa ikasten, baina, 18 urte dituztenean, sasoirik onena hartzen ari direnean, utzi egiten dute, unibertsitatera eta joaten direlako. Soinu handiarekin ere gertatzen da hori. Eten modukoa ematen da, baina hori da hemengo martxa. (...) Hori bai, trikitixan ikusi edo sumatu dudak aldaketa nagusia izan da ikasleen adina. Adineko jende gehiago hasten da orain trikitixa ikasten. Ez da gazte jendearen kontua bakarrik".

- "Moda modukoa izan da. Oartzunen bertan izaugarrikoa izan zen. Baina moda hori joan egin zen eta, orain, betikoa gelditzen da. Baina orain lan gehiago egiten da, eta ikasten dutenak ere gehiago finkatzen dira. Trikitixaren munduan ere badira betidanik jotzen duten familiak, tradizio familiar hori".

- "Bikoteen fenomeno hori ere pasata dago. Pentsa, Azkoitia-Azpeitia aldetik ere ez da ateratzen bikoterik, eta ohitura handia egon da beti zonalde horretan".

- "Egia esan, trikitixa jotzen dakitenei beti kostatu zaie irakastea, sekreto modukoa da. Nik neuk bizi izan dut hori Oartzunen: kantaren zati bat erakusten ziguten, baina hurrengo astean joan eta kantaren beste zatia "ahaztu" egiten zitzaizkien...". (Oarsoaldeko Hitza, 2006/12/09)

• **Oroitz Maiz, soinu-jolea:** "Akordeoa euskal tresna herrikoa izan arren, jendeak ez du ikusi nahi halako instrumentuak egun zein musika mota egin dezakeen, edo ez da irteten etxetik hori ikustera. Gauza berriak erakutsi behar dira, baita lehenagokoak ere, konparatzeko izan ditzaten". (Sareko Argia, 2006/12/18)

• **Alaitz Telletxea, trikitilaria:** "Elkatea sendotu eta irudia berri nahi dugu. Aurten, zenbait ekimen prestatzen ari gara. (...) Elkartearen egitasmoak hiru puntutan banatzen dira. Ahalik eta dokumentazio zentro osatuena eta erabilgarriena egin nahi dugu. Irakaskuntza arloan, trikiti eskolen harremana sendotu nahi dugu, eta errolda egin. Ez dakigu zehazki zenbat ikasle ditugun. Partiturak ere argitaratu nahi ditugu, irakasleek materiala izan dezaten". (Oarsoaldeko Hitza, 2006/12/22)

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen Boletina

ALTZA PORRU!

2006ko abendua / 23.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte
L.G. : SS-418/01

TRIKIMAILUA.COM WEBGUNEA OSATUTA DATOR

Trikitixaren webgune hau, **Soinuaren Hotsa** izenekoa, 2005. urtean sortu zen. Soinu txikia historian kokatzeko ahalegin betean, hiru atal nagusirekin jaio zen: HIZTEGIA, KRONOLOGIA eta DOINUTEGIA sailekin.

Hain zuzen ere, azken atal hau, **trikimailua.com/doinutegia** izenekoa, goitik behera berri du EHTEK. 169 abestiren partiturak jarri dira bertan. Hainbat proiektutan zeuden partiturak gainbegiratu eta denen eskura jarri dira. Hortaz, trikitixaren historian garrantzitsuak izan diren melodiak topatuko ditugu bertan. Trikitixan egin ziren lehenengo grabazioekin hasten da lana eta batez ere errepertorio klasikoak ekarri nahi izan da gogora, oraingoz.

Horretaz gain, **trikitixa-eskolen zerbitzura** egongo da atal hau, eta, hartara, eskolek aukera izango dute partiturak entzun eta inprimatzeko. Partiturak **pdf formatuan** daude eta **midi** sistemaren bidez entzun daitezke.

Errepertorioa ordenatzeko, honako **irizpide hauek** hartu dira aintzat: **alfabetoa**, **generoak** eta **interprete/herrialdeak**.

ALFABETOAREN ARABERA

169 kanten izenburuak alfabetoaren arabera ageri dira.

GENEROEN ARABERA

Euskal Herriko eta kanpoko hainbat genero aurki genitzake. **Pirinioak** liburua egiteko, Aragoi, Okzitania eta Herrialde Katalanetako jendearekin lan egin zen eta soinu txikirako errepertorioa sortu. Hona hemen **generoen zerrenda**:

GENEROAK			
Pasodoblea	Trikitixa	Sardana	Jota
Fandangoa	Tangoa	Dantza	Rumba
Polka	Biribilketa	Bals-jota	Danze
Arin-arina	Havanera	Kantua	Branlo
Marxa	Porrusalda	Mazurca	

INTERPRETE / HERRIALDEAREN ARABERA

Bi kontzeptu bateratu dira atal hau egiteko. Alde batetik, Pirinioetako lanerako batutako herrialdeak, eta, beste alde batetik, gainontzeko errepertorioa jo duten interpreteak.

- Aragoi
- Auntxa eta Iturbide
- Eleuterio Tapia eta Juan Orbeagozo
- Epelde Anaia
- Euskal Herria
- Fasio eta Maurizia
- Felix Ilaramendi eta Primi Erostarbe
- Herrialde Katalanak
- Jazinto Rivas Elgeta
- Juanito Tapia
- Laja eta Zabale
- Leon eta Maurizia
- Manuel Sodupe Gelatxo
- Okzitania
- Rufino Arrola eta Kepa Arrizabalaga
- Sakabi eta Egañazpi
- Tapia eta Leturia
- Zumarragako Trikitixa



Azkenik, nabarmendu beharrekoa da bost egitasmotara jo dela trikimailua.com webgunearen doinutegia atal hau osatzeko. Hauexek dira aipatu egitasmoak: **Arteola partitura bilduma**, **Elgeta**, **Gelatxo**, **Pirinioak** eta **Tapia eta Leturia 1998**.



GETXO ETA DONOSTIAKO NAZIOARTEKO JAIALDIETAKO PRINTZAK

Kursaalgo Nazioarteko Jaialdiari dagokionez, ia bete egin zen aretoa eta bildutako jende andana gustura geratu zen jaialdiarekin. Panderoarekin batean, ahotsek jaso zuten txalo zaparradarik gehien, emakumeen ahotsek bereziki. Tartean, **Mertxe Oliden**, **Mentxu Alkorta** eta **Gema Sistiaga** zeuden. Portugaldik, berriz, **Chaozinha Ahizpak** etorri ziren, eta hauek ere ahots ikusgarria dutela erakutsi zuten, edonori oiloipurdia jartzeko modukoa. Jaialdiaren ostean, urtero legez, trikitixak Kursaalgo aretotik sukalde baztertera egin zuen salto, eta jaialdi ondorengo afarian ere giro paregabea izan zen, trikitixa-doinuak lagun.



XABIER AMURIZA ETA MIXEL DUCAU

Bizkaiko koplaren muestra bat ekarri zuten. Mixel Ducau gitarrarekin aritzeaz gain, koplakantari ere aritu zen, Amurizarekin batean. Banangoa, eta binangoa entzun ahal izan genituen, besteren artean.

CATHRIN ALISCH (Alemania) ETA ALAITZ TELLETXEA

Alemaniaren eta Euskal Herriaren arteko elkarketa honek emaitza interesgarria eman zuen. Biek ere profesional mailan hainbat urtetako esperientzia aldean zutela ezagun zen. Jotzeko eta abesteko dituzten hainbat erregistro ikusi ahal izan genituen, eta errepertorio alemana plazaratu zuten. Alaitzek ere ederki abestu zuen alemanez.



JULIAN ETA ION COBZARU (Errumania)

Donostia-errumaniar hauek euren tradizioko hainbat kanta ekarri zizkiguten. Julian soinu-jotzaileak maisutasuna erakutsi zuen soinua jotzen eta Ion kantaera berezia ere entzun ahal izan genuen.

KOPLA KANTARI

Mertxe eta Mentxu bakarka eta aurrez aurre aritu ziren koplakantari. Giro ezin hobea eta jendearen algara sorrarazi zuten tradiziozko koplek zein jaialdirako propio sortutako koplak sortek. Atzean zituzten laguntzaileak ere ezin hobeto aritu ziren bi koplariak laguntzen, soinua eta panderoa lagun.



CHAOZINHA AHIZPAK

Portugaldik etorritokotako zazpikoteak jendea harri eta zur utzi zuten. Lau ahizpen kantatzeko modua eta batez ere erabiltzen zuten erregistroa ikaragarri interesgarria suertatu zitzaion bertan bildutako jendeari.

GOSE

Gosek beste erregistro bat ekarri zuen jaialdira, berria. Elektronika eta trikitixa uztartu zituzten, eta jendearengan oso harrera ona izan zuten. Tradiziotik abiatuz, trikitixaren beste irakurketa bat proposatu zuen talde bizkaitar honek.



JAIALDIAREN AMAIERA

Bukatzeko, partaide guztiak igo ziren berriro oholtza gainera, Anabel Arraiza eta Pilar Rodriguezen aurkezleek deituta, eta txalo zaparrada beroa jaso zuten guztiek ere.



OIARTZUNGO PANDERO JARDUNALDIEN BALORAZIOA, EKITALDIZ EKITALDI

V. Herri Musikaren Jardunaldiak Oiartzungo Herri Musikaren Txokoa izan ziren, **azaroaren 25 eta 26an**. Panderoa izan zuten protagonista, eta, instrumentu honen gainean hausnartzeko aitzakian, hainbat ekitaldi egin ziren. Hona hemen, irudi eta hitz bidez, asteburu hark emandakoa.



HITZALDIAK

Hiru hitzaldi izan ziren: **Galiziarrek** panderoaren historia eta ikonografia landu zituzten batez ere. **Leongoek** euren herrialdean panderoaren inguruko bilketa-lanak eta tradizioa zein egoetara dauden azaldu zuten, eta **Imanol Urkizu** eta **Leturiak** Euskal Herriko panderoaren hainbat atal jorratu zituzten: txapelketak, diskogintza, eskolak...



MAHAI-INGURUA

Hiru herrialdeetako ordezkariak eta **Ixiar Oreja moderatzailea** izan ziren protagonista. Herrialde bakoitzeko ordezkariak bere ikuspuntua eman zuten: generoa, jotzeko modua, eskolak, terminologia, gizarteko presentzia... izan zituzten hizpide, besteak beste.



KONTZERTUA

Bi orduko kontzertua izan zen Udaleko areto nagusian. Ikusle kopuru polita elkartu zen. **Euskal Herri**tik Leturia, Imanol eta Motriku, eta Roberto Etxebarria eta Kepa Arrizabalaga bizkaitarrak izan ziren. **Galiziako ordezkariak** pandero mota ezberdinekin euren errepertorioko hainbat toke eta kanta jo zituzten. **Leongoek** jo eta kantatzeaz gain, dantzatu ere egin zuten eta euren herrialdeko trajeak ekarri zituzten.



TAILERRA

Igande goizeko tailerrean 22 lagun bildu ziren. Herrialde bakoitzak ordu eta laurdeneko saio praktikoa eskaini zuen, euren errepertorioko toke (jotzeko modu) eta erritmoak landuz.



ERROMERIA

Jardunaldiak amaitzeko, udaletxeko arkupetan erromeria antolatu zen. **Oiartzungo Trikitixa eta Bertso Eskolak** izan ziren erromeria martxan jarri zutenak. Ondoren, leongo eta galiziako txanda iritsi zen, eta, amaitzeko, Zumarragako Trikitixako doinuen harira, dantzarako talde polita osatu zen arkupetan.

Oro har, herri-musikaren jardunaldiak direla eta, antolatzaileak oso pozik geratu ziren. Jende kopuru polita bildu zen ekitaldi hauen aitzakian: pandero-irakasleak, ikasleak, herri-musikako profesionalak, trikitixa eta panderozaleak...

Hitzaldiak ez ezik, kontzertua, erromeria eta afaria ere antolatu zituzten herri-musikaren jardunaldien harira. Herri Musikaren Txokoko Juan Mari Uruzola oso pozik agertu zen jardunaldiok, eta berebiziko garrantzia eman zion panderoaren inguruan aritzeko, hainbat lekutako jendea elkarlanerako bildu izanari. Hala nola, **Lalongo Escuela de Folque**, **Oiartzungo Herri Musikaren Txokoa** eta **Euskal Herriko Trikitixa Elkarte** aritu dira elkarlanean.

GOZATEGI: Gozteri.com

Sei urteren ondoren, Babel Musik izeneko disketxe berriarekin argitaratu dute beren azken diskoa, bosgarrena hain juxtu. Aldarrikapenez jotako lana da oraingoa ere. Hau da, gizarteko arazoak kritikatzeko erabili dute trikitixa. Alderdi horretatik, beren ohiko ildoari jarraitu diote, **abesti dantzagarriak** eta **mezu zuzenak dituzten hitzak** osatuz.

Hitzei dagokienez, hitz gehienak Asier Gozategi berarenak dira, baina Iñaki Gurrutxaga eta Xabier Sukia bertsolarien hitzak ere musikatu dituzte. Musikariei dagokienez, hirukoteak alboan izan ditu Imanol Goikoetxea (gitarrak), Julio Andrade (baxua eta kontrabaxua) eta David Gorospe (bateria). Axular disko-jotzaileak ere egin dio ekarria Gozategiren azken diskoari, perkusioa lagun.

Gainerakoan, Julian Cobzanuk soinu handiarekin lagundu die eta Eugen Dumitreskuk gitarrarekin.

Oro har, bai melodian bai gaietan **hasierako lanen kutsua** dario disko berriari, baina aurreko diskoetakoak baino **doinu beroagoak** dira entzungai. Guztira, **hamabi abesti** eta **fandango baten bertsioa** entzun ditzakegu. Iragan maiatzean grabatu zuten, Haritz Harreguyrekin, Garate estudioetan. Hemendik aurrera diskoa plazaz plaza aurkezten arituko dira, ohiko alaitasunarekin.



DISKO BERRIAK